



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA  
2016/10/18

## **Aldundiak ontzigintzako arotzeria "ezagutzeko poloa" sortzea proponiduko dau Bilboko Itsasadar Museoa**

Foru Aldundia Bilboko Itsasadar Museoaren kultur eskintza hobetzeko prest dago, eta horretarako, Museoaren patronatuak egingo dauen hurrengo bileran, ontzigintzako arotzeria "ezagutzeko poloa" sortzea proponiduko dau, Lorea Bilbao Euskera eta Kulturako Foru diputatuak, Bizkaiko Batzar Nagusietan egin dan batzordearen aurrean izan dauen agerraldian Batzarretako taldeei jakinarazo deusenez.

Bilbao, EH Bildu taldeak, Aldundiak Antxustegi atun-ontzia berreskuratzeko emon dituan pausuakaz erlazionauta planteau dituan galderei erantzutera joan da Bizkaiko Batzarretara. Euskalduna kai lehorrean erakusgai dagon arrantzontzia "egonkortu" egin da orain denpora gitxi, narrioa kontrolatuko.

Foru arduradunak azaldu dauenez, egurrezko itsasontzia eutsita dagon estruktura eusteko egin diran beharrez baliata (horreen artean eguraldi txarretik babestuko dauen estalgia inataleata dago), Foru Aldundiak, patronatuko kide moduan, etorkizunerako dituan planak azalduko ditu Bilboko museoko erabagi organo nagusiaren hurrengo bileran. Plan horreen barruan, ontzigintzako arotzeria "ezagutzeko poloa" sortzea dago, diziplina hori desagertuz doalako. Une honetan, "Estadu osoan Lanbide Heziketan be ez dago", esan dau.

Patronatu barruan hartu beharko dan erabagi hori, "Museoaren programazinoa eta eukiak eguneratzeko" behararen barruan sartuko da. "Gure eretxiz, gure Lurraldeak bultzatu behar dauen kultur eskintza aberasgarria da", esan dau.

Horrez gain, Euskera eta Kulturako Foru diputatuak, bilera horretara Antxustegi itsasontzia berreskuratzeko "hiru aurrekontu" eroango dirala esan dau. Itsasontzia, izen bereko familiak laga eutsan museoari, Bizkaiko itsas ondareko beste pieza garrantzitsu batzuekaz batera erakusteko.

Bilbao bat etorri da Batzarretako gainerako taldeakaz, itsasontziak "berreraikuntzea" behar dauela esatean, baina une honetan dagon leku berean, "mobiduten badogu hautsi egingo dogulako". Testuinguru horretan planteetan dau Foru Aldundiak "ezagutzeko poloa" sortzeko proiektua, egurrezko itsasontziak eregiteko edo konpontzeko, modu artisauan, iraganean gure lurraldean garrantzi handia izan eban lanbidea berreskuratu ahal izateko. "Holan, ezagutzea lortuko dogu" eta, aldi berean, "geure ondarea berreregiko dogu".

Oposizinoak atun-ontzia berreskuratzeko prozesua arintzeko eskaria egin dau, "denporea aurrera doalako eta narrioa gero eta handiagoa dalako", Meritzel Elgezabal EH Bilduko batzordekideak adierazo dauenez. Bere eretxiz, instalau diran "burdinazko euskarriak" esker itsasontzia egonkortu egin da, baina "gauzak oso gitxi aldatu dira itsasontzia berreskuratzeari jagokonez".

Izan be, "bertan behera itzita eta tratu txarra jasaten dagolako", SOS Antxustegi plataformeak demanda aurkeztu dau Justizia Epaitegi Gorenean, koalizino abertzaleko batzordekideak



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

gogoratu dauenez. Salaketa horren gainean galdetuta, ekimena “errespetetan” dauen arren, Aldundiak gurago dauela alde batera geratu esan dau Bilbaok.

## INDUSTRIA ONDAREA

Podemos Bizkaiak eskatutako beste agerraldi batean, hiru aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren artean Euskadiko industria ondarearen plana egiteko orain arte emon diran pausuak aitatu ditu Aldundiko arduradunak. Bilbaok esan dauenez, lehenengo pausua, Eusko Jaurlaritza egiten ari dan ondarearen inbentarioa, “nahiko aurreratuta” dago.

Pausu horren ostean, “jarduketarako erespideak” bateratzea eta industria ondarea berreskuratzeko “lehentasunak eta epeak” ezartea etorriko dira, eta horretarako Industria Ondarearen Euskadiko Alkartearen, unibersidadeen eta arlo horretan espezializauta dagozan erakundeen laguntza izango da.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA  
18/10/2016

## **La Diputación propondrá crear un "polo de conocimiento" de la carpintería de ribera en el Museo Marítimo de Bilbao**

La Diputación está dispuesta a mejorar la oferta cultural del Museo Marítimo de Bilbao y, para ello, propondrá en la próxima reunión de su patronato la creación de un "polo de conocimiento" de la carpintería de ribera, según ha trasladado hoy a los grupos junteros la diputada foral de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao, en una comparecencia en la comisión correspondiente de las Juntas Generales de Bizkaia.

Bilbao asistía a la Cámara vizcaína para responder a las cuestiones planteadas por EH Bildu en relación a los pasos dados por la Diputación para recuperar el atunero Antxustegi, un buque pesquero expuesto en el dique seco del Euskalduna que ha sido recientemente "estabilizado" para frenar su deterioro.

La responsable foral ha explicado que, aprovechando las labores de apuntalamiento de la estructura donde se apoya el barco de madera, las cuales incluyen la próxima instalación de una cubierta que la proteja de las inclemencias del tiempo, la Diputación, como miembro del patronato, expondrá en la próxima reunión del máximo órgano de decisión del museo bilbaíno, sus planes futuros que pasan por la creación de un "polo de conocimiento" de la carpintería de ribera, una disciplina que está desapareciendo. En estos momentos, "en todo el Estado no existe ni en la FP", ha dicho.

Esta iniciativa, que deberá adoptarse en el seno del patronato, se enmarca según Bilbao en una labor de "actualización de la programación y contenidos museísticos". "Entendemos que es una oferta cultural que nuestro Territorio debe lanzar y que es enriquecedora", ha sostenido.

La diputada foral de Euskera y Cultura ha informado que, además, a esa próxima reunión, llevarán "tres presupuestos" pedidos para recuperar el Antxustegi, un barco que fue cedido al museo por la familia del mismo nombre para su exposición junto a otras piezas relevantes del patrimonio naval vizcaíno.

Bilbao ha coincidido con los grupos junteros en que dicha embarcación necesita una "reconstrucción", pero en el mismo sitio donde descansa ahora, ya que "si lo movemos, lo destrozaremos". Es en este contexto, donde la Diputación plantea un proyecto para crear un "polo de conocimiento" para construir o reparar embarcaciones de madera de manera artesanal, que sirva para recuperar un oficio que en el pasado contó con gran implantación en el territorio. "Así generaremos conocimiento", al tiempo que "recomponemos nuestro patrimonio".

La oposición ha animado a que se acelere el proceso de recuperación del atunero, ya que el "tiempo pasa y el deterioro es inexorable", ha señalado la juntera de EH Bildu Meritzel Elgezabal, para quien las "calzas de hierro" instaladas han servido para estabilizar el buque, pero "las cosas han cambiado poco en lo que atañe a la recuperación del barco".

Precisamente, esta situación de "abandono y maltrato" ha empujado a la plataforma SOS Antxustegi a interponer una demanda en el Tribunal Superior de Justicia, según ha recordado la



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

apoderada de la coalición abertzale. Preguntada por esta denuncia, Bilbao ha indicado que “respetan” la iniciativa, aunque la Diputación prefiere mantenerse al margen.

#### PATRIMONIO INDUSTRIAL

En otra comparecencia, solicitada esta vez por Podemos Bizkaia, la responsable foral se ha referido a los pasos dados hasta ahora para elaborar un Plan de Patrimonio Industrial Vasco entre las tres diputaciones y el Gobierno Vasco. Bilbao ha comunicado que el primer paso, la elaboración de un inventario del patrimonio que está llevando a cabo el Ejecutivo de Gasteiz, está “bastante avanzado”.

A este paso, le seguirá después unificar “criterios de actuación” y establecer las “prioridades y plazos” para la recuperación del patrimonio industrial, en lo que se contará con la Asociación Vasca de Patrimonio Industrial, la universidad y entidades especializadas en este campo.